- Euskara dakiten profesionalak formatzea: hedabide guziekin ausnarketa talde bat sortzea

- Hedabideen alorrean dauden zuzenbide komuneko finantzemendu dispositiboen etengabeko jagoletza egitea

- ETBren hedapen numerikoa:
  - Elkargoen diruztapen berezien biltzea eta Fransatek bideratzen duen eragilearen satelite bidezko hedapenaren finantzatzea
  - Administrazio eta teknika mailako jarraipena
  - ETBrekin partaidetza, satelite eta hertziar bidezko hedapenen jarraipena egiteko

- Hedabideen kontsumo neurketa Ipar Euskal Herrian: Codha bulegoaren ikerketa bururatzea eta lehen emaitzen jakinaraztea

- Euskarazko zinemarako eta ikus-entzunezkoentzako lanen sorkuntza/ ekoizpena/ hedapena/ banaketa:
  - Eskualdea, LZIA, departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa, EKE, EEP eta eragileen arteko ausnarketan parte hartzen segitzea
  - Kanaldude deialdia antolatzen laguntzen segitzea, HBHarekin lankidetzan

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuekin den lankidetzaren baitan, hedabideei buruzko mugaz gaindiko hausnarketa taldea segitu eta bertan parte hartu

- Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea

**…2020ko jarduera programa**

helburuarekin
  - Irratigintzako eragileak laguntzea DAB+ araua plantan ezartzeko

- Profesional euskaldunak formatzea: hausnarketa segitzea eta formakuntza aukera desberdinak zehaztea

- Hedabideen eremuan dauden zuzenbide komuneko finantzamendu dispositiboen etengabeko jagoletza egitea

- ETBren hedapen numerikoa:
  - Elkargoen diruztapen berezien biltzea eta Fransatek bideratzen duen eragilearen satelite bidezko hedapenaren finantzatzea
  - Administrazio eta teknika mailako jarraipena
  - ETBrekin partaidetza, satelite eta hertziar bidezko hedapenen jarraipena egiteko
  - Hedapen zerbitzuen kontratuak berritzeko xedearekin, konkurrentziarako deialdi publikoak antolatzea:
    - EiTB multiplexa hertziar sarearen bidez (bistan da merkatu hau Eitbri transferituko zaiola)
    - ETB1 eta ETB3 kateak satelite bidez

- Hedabideen kontsumo neurketa Ipar Euskal Herrian: inkestaren emaitzen hedatzea

- Euskarazko zinemako eta ikus-entzunezkoentzako lanen sorkuntza/ ekoizpena/ hedapena/ banaketa:
  - Eskualdea, LZIA, Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa, EKE, EEP eta eragileen arteko ausnarketan parte hartzen segitzea
  - Kanaldude deialdia antolatzen laguntzen segitzea, HBHarekin lankidetzan

- Hedabideei buruzko mugaz gaindiko hausnarketa taldean parte hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuekin dugun partaidetzaren baitan

- Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea

## 2019ko jarduera bilduma…

- **Internet**

  - EEP/Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernuaren arteko partaidetzaren baitan, informazio trukaketa eta partekatzea

- **Bizitza sozialeko eragileak**

  - Erakundeetako eta erakundeez haraindiko eragileak laguntzea elebitasuna sustatzeko (seinaletika, komunikazio euskarriak, erabiltzaileentzako zerbitzuak…):
    - Lankidetza hitzarmenak biziaraztea (jarraipena, adostu ekintzak obratzeko laguntza teknikoa):
      - Capio Aguilera klinika
      - Baionako Euskal Museoa
    - Hitzarmenak bukatu zaizkien eragileei laguntza teknikoa eskaintzen segitzea (segipena, itzulpenak, hizkuntza baieztapenak, elebitasuna obratzeko laguntza teknikoa):
      - Euskal Kostaldeko Ospitale Zentroa
      - Izpurako Luro Fundazioa
      - Capio Belharra Klinika
      - Donapaleuko Ospitale Zentroa
    - Hitzarmen bati buruz lan egiteko bilkura politiko eta teknikoak:
      - Biarritz Ipar Euskal Herriko aireportua

  - EEP-ko kideei obralaritza-laguntza ekartzea, haiek galdatuz gero, euskararen presentzia eta erabilera garatzeko haien funtzionamenduan eta haien eskumenpeko eragileen baitan:
    - Itzulpenak (Departamendua, Eskualdea)
    - Hizkuntza baieztapenak (Euskal Elkargoa, Departamendua, Eskualdea)

  - Hobekuntza kontratu bidez herriko etxeen funtzionamendu elebidun autonomoa helburu duen herrien laguntza dispositiboa:
    - 2013-2016 aldirako onartu hobekuntza kontratuen finantzatzen segitzea
    - Hobekuntza kontratuen baitan Hendaiako hiriak itzuli dituen 6

## …2020ko jarduera programa

- **Internet**

  - Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako gobernuarekin lankidetzan, garatu behar diren edukiak zehaztea, Interneten euskarazko edukiak garatzeko estrategia definitzeko, arloko Wikimedias bezalako eragileetan oinarrituz.

- **Bizitza sozialeko eragileak**

  - Erakundeetako eta erakundeez haraindiko eragileak laguntzea elebitasuna sustatzeko (seinaletika, komunikazio euskarriak, erabiltzaileentzako zerbitzuak…)
    - Izenpetu hitzarmenen jarraitzea eta horien obratzen laguntzea
    - Hitzarmen bat egiteko abiatu lanak segitzea
    - Eragile nagusiei buruz abiatu desmartxak segitzea eta horrela erabakitzen bada, laguntzea

  - EEP-ko kideei obralaritza-laguntza ekartzea, haiek galdatuz gero, euskararen presentzia eta erabilera garatzeko haien funtzionamenduan eta haien eskumenpeko eragileen baitan

  - Hobekuntza kontratu bidez herriko etxeen funtzionamendu elebidun autonomoa helburu duen herrien laguntza dispositiboa:
    - 2013-2016 aldirako onartu hobekuntza kontratuen finantzatzen segitzea
    - Hobekuntza kontratuen baitan itzultzen diren dokumentu eta bestelako

## 2019ko jarduera bilduma…

dokumentu eredu elebidunen bilketa eta baieztatzea:

- Hiriek eskatuz gero, abiatu dituzten hizkuntza politiken jarraipena egitea:
  - Biarritzeko gidaritza batzordean eta Baionako herriko etxetik kanpoko komisioan parte hartzea
  - Baionako hiria laguntzea, EEPk euskarari buruzko herriko etxetik kanpoko batzordean parte hartuz:
    - Bonnat-Helleu museoko seinaletika eleaniztunean euskara integratzeko eskema definitzen laguntzea
    - Euskarak, hiriak antolatzen dituen oihartzun zabaleko ekitaldietan zer leku duen aztertzeko diagnostikoa eramaten laguntzea (Baionako bestak, Xingar feria, musikaren besta) eta proposamenak egitea euskararen presentzia areagotzeko.
    - Euskarak hiriko sare sozialetan zer leku duen aztertzeko diagnostikoa egiten laguntzea, eta euskararen presentzia areagotzeko proposamenak egitea

- Enpresak, saltegiak eta pertsonentzako zerbitzu pribatuetan elebitasuna garatzen laguntzea (seinaletika, komunikazio euskarriak, bezeroekiko harremana), zuzenki edota lankidetza-hitzarmen estrategikoetan oinarrituz
  - Eragile nagusiak:
    - Crédit Agricole: bankuak, euskararen presentzia eta erabilpena garatzeko kontratatu duen pertsonaren laguntzea, itzulpenak eta hizkuntza baieztapenak, bilkura politiko eta teknikoak, lankidetza hitzarmen baten sortzeko xedearekin.
  - Hipermerkatuak:
    - Ikea: euskararen presentzia sustatzeko desmartxaren jarraipena, hitzarmenik gabe
    - Carrefour BAB 2: euskararen presentzia garatzeko proposamena eta laguntza teknikoa (itzulpenak, hizkuntza baieztapenak, elebitasunaren garatzea), hitzarmenik gabe (seinaletika, komunikazioa, etab.)
    - Donibane Lohizuneko Gamm Vert saltegia: seinaletika euskarrien itzulpenak eta hizkuntza baieztapenak
    - Leroy Merlin eta Angeluko E. Leclerc saltoki handiei igorri gomitei erantzunik ez.

## …2020ko jarduera programa

euskarri elebidun ereduen bilketa eta baieztatzea segitzea, eta EEPren estranet sarean eskura ezartzea

- Hiriek eskatuz gero, abiatu dituzten hizkuntza politiken jarraipena egitea:
  - Hiriek eskatuz gero, Batzordetan eta komisioetan parte hartzea edo hizkuntza politikak jarraitzea

- Enpresak, saltegiak eta pertsonentzako zerbitzu pribatuak elebitasuna garatzen laguntzea (seinaletika, komunikazio euskarriak, bezeroekiko harremana), zuzenki edota lankidetza-hitzarmen estrategikoetan oinarrituz:
  - Eragile nagusiak:
    - Abiatu desmartxen jarraipena eta obratzerako laguntzea
    - Hitzarmen bat egiteko abiatu lanak segitzea
    - Eragile nagusiei buruz abiatu desmartxak segitzea eta horrela erabakitzen bada, laguntzea
  - Hipermerkatuak:
    - Abiatu lanaren segitzea

## 2019ko jarduera bilduma…

- Beste saltegi eta lantegien laguntzea:
  - Maison Paries: euskararen presentzia garatzeko proposamena eta laguntza teknikoa, hitzarmenik gabe (identitate korporatiboa, seinaletika, komunikazioa)
  - Aiphone: laguntza teknikoa, enpresak proposatzen dituen erantzungailu mezuetan euskara sar dezan
- Euskal Moneta:
  - Eragilea EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, bere sareko saltegietan afixaketa elebiduna garatzeko animazio lanaren egiteko
  - 115 saltegi berriren afixaketa datuen itzulpena (hitzarmena izenpetu zenetik, 345 saltegiren datuak itzuliak izan dira, eta gaur egun, elkarteak ziurtatu du 194 saltegik afixaketa elebiduna zutela)
  - Datu basearen elikatzea itzulpen berriekin: 16.736 sartze

- Eragileak EEP/EJ lankidetzarako Fondoaren bitartez diruz laguntzea

- **Erabilpena garatzeko sentsibilizazio dispositibo eta ekintza bereziak**

- 2018an sortu zen Euskaraldia mugaz haraindiko proiektuan parte hartzea, euskararen erabileraren aldeko dinamika soziala sortzeko euskal hiztunak aktiba daitezen, euskara haien eguneroko bizitzan erabiltzeko:
  - Proiektuaren koordinazioan parte hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuekin:
    - Mugaz gaindiko koordinazio mahaieko bilkuretan parte hartzea:
    - Euskaraldiari buruzko prentsaurrekoetan parte hartzea
    - Ekimena ebaluatzen duen mugaz gaindiko batzorde zientifikoan parte hartzea
    - Euskaraldiaren lehen edizioaren ikerketaren aurkezpen txostena frantsesera itzultzea

## …2020ko jarduera programa

- Bertze saltegi eta lantegien laguntzea:
  - Abiatu lanaren segitzea
  - Elebitasuna garatzeko, saltegiak eta pertsonentzako zerbitzu pribatuaklaguntzeko kuadro bat definitzen hastea, eragileekin lankidetzan (EEPk zuzenean lagunduz edo lankidetza konbentzional estrategikoetan bermatuz): mugaz bi aldeetan dauden dispositiboen diagnostiko bat eginez

- Euskal Moneta:
  - Elkartea laguntzen segitzea

- Eragileak EEP/EJ lankidetzarako Fondoaren bitartez diruz laguntzea

- **Erabilpena garatzeko sentsibilizazio dispositibo eta ekintza bereziak**

- Euskaraldia, mugaz haraindiko proiektuaren 2. saioan parte hartzea:
  - Proiektuaren obratzea Ipar Euskal Herrian:
    - 2018ko hitzarmenari jarraituz, EEP/ Euskal Hirigune Elkargoa / Euskal Konfederazioaren arteko lankidetza hitzarmena zehaztea, proiektua kudeatzeko eta diruztatzeko helburuarekin (koordinazioa, komunikazioa, animazioak eramateko bi langile kontratatuko dira - denbora oso 1,5)
  - Mugaz gaindiko koordinazio mahaian parte hartzea Elkargoarekin batean:
    - Mugaz haraindiko koordinazio bilkuretan parte hartzea (egindakoaren bilana eta garapen aurreikuspena)
    - Euskaraldiari buruzko prentsaurrekoetan parte hartzea
    - Urratsa ebaluatzeko ikerketa batzordean parte hartzea

# 2019ko jarduera bilduma...

**3/ Euskararen transmisioaren eta erabileraren erronkak betetzeko beharrezkoak diren laguntzazko edo zeharkako tresnak antolatzea**

- **Helduen euskalduntzea**

  - Langileen euskarazko formakuntzarako laguntza:
    - Lurraldeko agente publikoen formakuntza:
      - LFPZN-rekilako partaidetza (Lurraldeko Funtzio Publikoaren Zentro Nazionala):
        - 2020an gehigarri baten bidez luzatu den lurraldeko formakuntza profesionalerako LFPZN (CNFPT) eta EEPren arteko 2016-2019 hitzarmena obratzea ( 2019an formakuntza hasi duten hiru taldeen formakuntzaren jarraipena, 2020. urteko hiru talde berrien osaketarako eta dagozkien formakuntza planak sortzeko LFPZN (CNFPT) laguntzea, kolektibitateekin harremanean)
        - LFPZN-ren (CNFPT) eskubide komuneko dispositiboak ahal bezainbeste mobilizatzeko lanak segitzea, euskarazko formakuntzari dagokionez, Euskal Hirigune Elkargoarekin, Departamenduarekin eta Eskualdearekin lankidetzan: LFPZN-ko (CNFPT) eskualdeko arduradunekin bilkura bat antolatzea, instituzio guzietako ordezkarien presentzia segurtatuz, denek batera eskatuz LFPZN-ri (CNFPT) bere dirulaguntza modu adierazgarrian emenda dezan.
    - Irakasleen formakuntza: Ik. Irakaskuntza
    - Enplegu galdegileentzako euskarazko formakuntza:
      - Enplegu galdegileei zuzendu euskarazko formakuntza trinkoaren jarraipena eta bilduma, AEKrekin eta Akitania Berria Eskualdearekin partaidetzan
      - Proiektuaren berritzea
    - Eremu parapubliko edo izaera publikodun eragileak: langileen euskarazko formakuntza martxan ezartzeko laguntza teknikoa

# ...2020ko jarduera programa

**3/ Euskararen transmisioaren eta erabileraren erronkak betetzeko beharrezkoak diren laguntzazko edo zeharkako tresnak antolatzea**

- **Helduen euskalduntzea**

  - Langileen euskarazko formakuntzarako laguntza:
    - Lurraldeko agente publikoen formakuntza:
      - LFPZN-rekilako partaidetza (Lurraldeko Funtzio Publikoaren Zentro Nazionala):
        - Lurraldeko formakuntza profesionalerako LFPZN eta EEPren arteko 2016-2019 hitzarmena obratzea: gehigarri bidez luzatua 2020rako. 2020ko hiru taldeek formakuntza segituko dute
        - LFPZNarekin lanean segitzea, euskarazko formakuntzak LFPZNaren zuzenbide komuneko dispositiboen parte izan daitezen, Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua eta Eskualdearekin lankidetzan.
      - 2010-2017 urteen bitartean EEPk hitzarmenez onartu formakuntzen diruztatzean segitzea (herrien laguntza dispositiboak eta haurtzaindegien laguntza plangintzak)
    - Irakasleen formakuntza: Ik. Irakaskuntza
    - Enplegu galdegileentzako euskarazko formakuntza:
      - Enplegu galdegileei zuzendu euskarazko formakuntza trinkoaren jarraipena eta bilduma, AEKrekin eta Akitania Berria Eskualdearekin partaidetzan
      - Proiektuaren berritzeko lanak eramatea eta egingarritasun ikerketa eraman formatuak izanen diren enplegu galdegileen kopurua emendatzeko
    - Eremu parapubliko edo izaera publikodun eragileak: langileen euskarazko formakuntza martxan ezartzeko laguntza teknikoa

  - Euskara dakiten profesionalak eskas diren eremuetan (hedabideak, lehen haurtzaroa, aisialdiak …) profesionalak prestatzeko euskarazko formakuntzak sustatu: irakasleei eta irakasle izan nahi dutenei zuzendua den «Euskaraz irakatsi» dispositiboa hainbat eremu estrategikoetara zabaltzea

## 2019ko jarduera bilduma…

- **Hizkuntza egiaztatze dispositiboa**
  - Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko proben antolaketa:
    - C1 mailako EGAren egiaztatze proben urteroko bi deialdien antolaketa: 82 gainditu 164 azterketaritik 2019an
    - B1 mailako B1Earen egiaztatze proben urteroko deialdiaren antolaketa: 43 gainditu 60 azterketaritik 2019an
  - Hizkuntza egiaztatze dispositiboaren egituraketa:
    - C1 mailako zuzentzaile berrien formakuntza, Batzorde Zientifikoa azkartzeko
    - B1 mailako agiriaren baliokidetza Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako foru erkidegoan: eskaera txostena ontzat ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Baliokidetzen Batzordeak
    - Batzorde Eratzaileak B2 mailako "B2Ea" agiria sortzeko lanen abiatzea (ik. irakaskuntza):
      - Zuzenketa eta azterketa ereduak sortzea, zuzentzaileen formakuntza, lehen azterketa-saio baten antolaketa helduen euskalduntzetik etorri azterketari talde batekin
      - Desmaterialtzeko soluzioen analisia eta EEPren Biltzar Nagusiaren erabakia azterketaren kudeaketa eta azterketa-pasatze erabat digitalizaturako berariazko tresna elebidun global bat sortzeko : Izen emateak, azterketetarako deialdiak, proben iragan-moldea, zuzenketak, jakinarazpenak, agirien inprimatzea, datuen tratamendu estatistikoa
    - Formakuntzako eragileek eta finantzamendu kutxek euskarazko formakuntza kontuan har ditzaten:
      - France Compétence erakundeari (lehen CNCP) B1 eta C1 mailako agirien zerrendatzearen bost urteroko berritze eskaera
      - Formakuntzako eragileekin eta finantzatzaileekin lankidetza, France Compétence erakundearen Zerrenda espezifikoan diren euskarazko gaitasun agiriak eskuratzeko beharrezkoak diren formakuntza urte guziak kontuan har ditzaten

## …2020ko jarduera programa

- **Hizkuntza egiaztatze dispositiboa**
  - Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko proben antolaketa:
    - C1 mailako EGAren egiaztatze proben urteroko bi deialdien antolaketa
    - B1 mailako B1EAren egiaztatze proben urteroko deialdiaren antolaketa
  - Hizkuntza egiaztatze dispositiboaren egituraketa:
    - EEP, eta Bordele eta Paue eta Aturrialdeko Unibertsitateen arteko 2015-2020 hitzarmenaren ebaluazioa eta partaidetza berritzeko moldeak definitzea
    - C1 eta B1 mailako agiriak egonkortzea:
      - Zuzentzaileek HABE eta IVAP institutuek antolatu azterketen bateratze saioetan parte hartzea
      - Pasa diren azterketen ereduak Interneten publikatzea
      - Zuzentzaile berriak formatzea
    - B1 mailako agiriaren baliokidetza Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako foru erkidegoan: bi gobernu autonomoek dagozkien Aginduak publikatzea
    - Batzorde Eratzaileak B2 mailako "B2EA" agiria sortzeko lanak jarraitzea:
      - Zuzentzaileen formakuntza, azterketa-saioen antolaketa azterketari boluntarioekin eta zuzenketa-irizpideen bateratzea
      - Lizeoetako ikasleentzat: azterketari taldeekin azterketa-saioen antolaketa (ik. irakaskuntza)
    - azterketaren kudeaketa eta azterketa-pasatze erabat digitalizaturako berariazko tresna elebidun global bat sortzea
      - Prestatzaile berezitua hautatzeko lehiaketa publikorako baldintzen kaieraren idazketa
      - Lehiaketa publikoa abiatzea eta prestatzailea hautatzea

## 2019ko jarduera bilduma…

- **Hizkuntza baieztapenak eta baliabideak**

  - Hizkuntza baieztapen funtzioa egituratzea:
    - Hizkuntza baieztapen lanak segitzea eta garatzea, eragile publikoen eta para-publikoen eskaerei erantzuteko, horretarako oinarrituz:
      - pertsona adituengan, itzulpen lanak baieztatzeko
      - Euskaltzaindian, toponimoak baieztatzeko
    - Euskaltzaindiarekin partaidetzan, lurraldeko toponimoen grafia normalizatzeko lanak laguntzea eta jarraitzea:
      - Beren herriko toponimoen grafia normalizatzea eskatu duten Euskal Elkargoko 101 herritako lanak
      - Baionako karrika izenen toponimia lanak

  - EEPko kide diren instituzioek eskatu itzulpen eta baieztapen lanak laguntzea, honakoen eskaerei erantzunez
    - Euskal Elkargoak helarazi dokumentu eta euskarrien hizkuntza baieztapena jarraitzea (hobekuntza kontratuen kari itzuli dokumentuak, landare espezien gidaliburua…)
    - Departamenduak helarazi dokumentu eta euskarrien hizkuntza baieztapena jarraitzea (garraioak, Larrungo Trena, bide seinaleak, eraikinak...)
    - Eskualdeak helarazi dokumentu eta euskarrien hizkuntza baieztapena jarraitzea (Akitania Berria Eskualdeko Ekonomia sortzailearen eta kulturaren etxeko seinaleak)

  - Hizkuntza baliabideak besteen esku ezartzea:
    - Tokiko kolektibitateek telekarga ditzaketen dokumentu eredu elebidunak EEPren webguneko estranet tresnan ezartzen jarraitzea
    - "Hiztegia eskuan, euskara ahoan" Hiztegi Ttipien bilduma: bildumaren berritzea 15 hiztegi ttipi berriren sortzearekin, bildumako lexikoen kopurua 29re helduz gisa honetan

  - Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen-lanak laguntzea: Espainiako Vuelta, AHIK, Donapaleuko ospitale Zentroa, Capio klinika, Luro Klinika, Pariès txokolateak, Euskal Moneta, BAB2ko Carrefour, etab.

## …2020ko jarduera programa

- **Hizkuntza baieztapenak eta baliabideak**

  - Hizkuntza baieztapen funtzioa egituratzea:
    - Hizkuntza baieztapen lanak segitzea eta garatzea, eragile publikoen eta para-publikoen eskaerei erantzuteko, horretarako oinarrituz:
      - pertsona adituengan, itzulpen lanak baieztatzeko
      - Euskaltzaindian toponimoak baieztatzeko
    - Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Aldundiko hizkuntza baliabideetako zerbitzuekilako lanaren jarraipena, EEPren hizkuntza baieztapen zerbitzua optimizatzeko
    - Euskaltzaindiarekin partaidetzan, lurraldeko toponimoen grafia normalizatzeko lanak laguntzea eta jarraitzea:
      - Beren herriko toponimoen grafia normalizatzea eskatu duten Euskal Elkargoko 101 herritako lanak
      - Baionako karrika izenen toponimia lanak
      - Beste eskaerak

  - EEPren kide diren erakundeen itzulpen eta baieztapen eskaerei erantzuten jarraitzea

  - Hizkuntza baliabideak besteen esku ezartzea:
    - Tokiko kolektibitateek telekarga ditzaketen dokumentu eredu elebidunak EEPren webguneko estranet tresnan ezartzen jarraitzea
    - "Hiztegia eskuan, euskara ahoan" Hiztegi Ttipien bilduma: bildumako 8 hiztegi berezi inprimatzea, hiru irakaskuntza sailetako lehen maila elebidunetako gurasoen artean hedatzeko

  - Bizitza sozialeko alorrean EEPren partaide direnen itzulpen-lanak laguntzea

## 2019ko jarduera bilduma…

- Euskaltzaindiarekin partaidetza:
  - 2017-2022 Hitzarmen markoaren 2019ko eranskinaren prestaketa eta izenpetzea
  - Euskarazko profesionalentzako (kazetari, euskara teknikari, itzultzaile, irakasle, argitaratzaile…) formakuntza saio baten antolaketa eta animazioa Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen aholku batzordeko Terminologiako Batzordea eta UEUrekin partaidetzan
  - Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldien karietara antolatu jardunaldietan parte hartzea: ahoskera, Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren aurkezpena eta mundu digitalean euskararen estandarizazioa

- Eusko Jaurlaritzaren Euskararen aholku batzordeko Terminologiako Batzorde iraunkorrean parte hartzea
  - Baieztatze lana, adituengan oinarrituz, honako hiztegientzat: Lorezaintza, finantza eta bankua, feminismoa eta berdintasuna
  - Batzorde teknikoetarako adituak proposatzea honako hiztegientzat: Zurgintza, Entitate geografikoak

- Nola Erran frantsesa-euskara interneteko hiztegia:
  - Hiztegiaren edukiaren hobekuntza lanak:
    - Egindako itzulpenen aldaketak
    - Sartze berrien sortze eta itzulpena

  - Nola Erran hiztegiaren urteko erabileraren jarraipena:
    - 2010: 14.137 bisita, 79.085 kontsulta
    - 2011: 32.766 bisita, 202.809 kontsulta
    - 2012: 59.343 bisita, 345.128 kontsulta
    - 2013: 104.789 bisita, 643.998 kontsulta
    - 2014: 162.403 bisita, 978.637 kontsulta
    - 2015: 252.000 bisita, 1.375.000 kontsulta
    - 2016: 292.231 bisita, 1.562.468 kontsulta

## …2020ko jarduera programa

- Euskaltzaindiarekin partaidetza:
  - 2017-2022 Hitzarmen markoaren 2020ko eranskinaren prestaketa eta izenpetzea
  - *Programme de coopération territoriale Espagne-France-Andorre* POCTEFA programaren kari plazaratuko den "Euskara eskuz esku" Euskara batuaren eskuliburu elektronikoaren sustapena laguntzea
  - Euskarazko profesionalentzako (kazetari, euskara teknikari, itzultzaile, irakasle, argitaratzaile…) formakuntza saio baten antolaketa eta animazioa Euskaltzaindia eta UEUrekin partaidetzan

- Eusko Jaurlaritzaren Euskararen aholku batzordeko Terminologiako Batzordean parte hartzea
  - Baieztatze lana, ipar Euskal Herriko adituengan oinarrituz, honako hiztegientzat: Igeriketa, neguko kirolak, arrauna, albaitaritza, akuikultura, entitate geografikoak, kardiologia, hockeya
  - Batzorde teknikoetarako adituak proposatzea honako hiztegientzat: nutrizioa, ginekologia, psikiatria, arte grafikoak, elikagaigintza

- Ipar Euskal Herrian diren terminologia behar berezien ikerketa, hiztegiak sortzeko: Harategiak, politika publikoak…

- Nola Erran hiztegi frantsesa-euskara hiztegi digitala:
  - Xiberera sartzeko lanen segitzea (2. urtea 3 urteren gain)
  - Nola Erran frantsesa-euskara hiztegi digitala hobetzeko lanen aitzinatzea
  - Nola Erranen urteko behatzearen jarraipena

- 2017: 301.139 bisita, 1.578.867 konsulta
- 2018: 325.321 bisita, 1.631.799 kontsulta
- 2019: 350.883 bisita, 1.685.760 kontsulta

- Itzultzaile automatiko neuronala:
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, euskara/frantsesa - frantsesa/euskara itzultzaile automatiko baten sortzearen ikertzea
  - EEPren 2019ko abenduaren 17ko Biltzar Nagusiak erabaki zuen itzultzaile automatiko bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuarekin eta Vicomtech ikerketa-zentroarekin lankidetzan. Proiektua burura eramateko, 88.000 €-ko aurrekontu bat onartu zuen, urte batentzat misio kargudun bat kontratatzea barne

- **Hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetza**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzarekilako lankidetza:
  - 2017-2022 Hitzarmen-markoari lotua zaion 2019ko eranskina definitzea eta adostea
  - Ipar Euskal Herriko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzak esleitzeko antolatu dispositiboa bideratzea (eragile jakinak hitzarmenez lotzea eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia):
    - 2018rako lankidetzarako fondoa eratzea, bi aldeen ekarpenez, orotara 1.930.000 €-koa, EEPk 1.530.000 € ezarriz eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 400.000 €, bi multzotan antolatua:
      - 1.575.000 €-ko lehen multzoa: bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozen Ipar Euskal Herriko 9 elkarte-eragile jakin batzuek diruztatzea, 2019. urterako balio izan duen hitzarmenaren berme
      - 355.000 €-ko bigarren multzoa: Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribaturi zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren bidez bideratua
    - Hizkuntza jarduera proiektu deialdia irekitzea: 2019ko apirilaren 5an
    - Orotara, 55 eragilek, horietan 13 berrik, 73 proiekturentzat (2018: 77 proiektu - 52 eragile, horietan 9 berri) diru-laguntza eskaerak helarazi



- Itzultzaile automatiko neuronala:
  - Horren bideratzeko misio kargudun bat kontratatzea urte bateko
  - Bildu beharreko itzulpen corpusen emateko baldintzak ikertzea eta hitzarmenak platan ezartzea corpus horien erabilpen publikoa bermatzeko
  - Euskara/frantsesa eta frantsesa/euskara corpus bat osatzea (begiztatu eragileengan bildua: Euskal Elkargoa, Euroeskualdea, herriak, Ikas Euskal pedagogia zerbitzua…)

- **Hizkuntza politikari buruzko mugaz gaindiko lankidetza**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzarekilako lankidetza:
  - 2017-2022 Hitzarmen-markoari lotua zaion 2020ko eranskina definitzea eta adostea
  - EEP/Eusko Jaurlaritzak elkarrekin osatzen duten Lankidetza Fondoaren karietara Ipar Euskal Herriko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzak esleitzeko dispositiboaren berrazterketaren bururatzea eta dispositibo horren onartzea berrazterketaren ondotik hartu erabakien arabera
  - Ipar Euskal herriko eragile pribatuei zuzendu diru-laguntzak esleitzeko antolatu dispositiboa bideratzea (helburu eta baliabide hitzarmenak plantan ezartzea, hizkuntza jarduera proiektu deialdia bideratzea):
    - 2019ko dispositiboa zuritzea eta kitatzea:
      - Esleitu diru-laguntzak kitatzeko bidean, 2020ko otsailaren 28rako helarazi beharreko justifikagirien azterketa, zuriketa eta txosten guzien kitatzea
      - Deialdiaren gauzatze bilduma orokorra egitea eta Eusko Jaurlaritzari 2020ko ekain bukaerarako helaraztea
    - 2020ko dispositiboa bideratzea:
      - Hizkuntza jarduera proiektu deialdia irekitzea
      - Aurkeztu txostenen azterketa, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean
      - Erabakiak hartzea: EEPren Biltzar Nagusiak

dituzte. Proiektu guztiak aztertu dira Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.
    - Erabakiak hartzea: EEPren 2019ko uztailaren 2ko Biltzar Nagusian
    - EEP/Eusko Jaurlaritzaren artean hartu erabakien berri elkarrekin ematea 2019ko uztailaren 4an:
        - Eragile jakinak hitzarmenez lotzea: 9 eragile
        - Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia: 34 eragile, 52 proiektu
- Elkarlanean bideratutako lanak:
    - Euskararen lurraldeen (Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herria) arteko mugaz gaindiko Euskararen Adierazle Sistema:
        - Erabiltzaileek informazio hobea izan dezaten komunikazio numeriko baten estrategia definitzea eta abian ezartzea
        - Adierazle berrien definizio lanak segitzea (kirola eta aisialdiak, unibertsitatea, ingurune digitala) eta horien moldagarritasunaren egiaztapena hiru lurraldeen arabera egitea
        - Datuen bilketa (euskarazko eta euskararen irakaskuntza, helduen euskalduntzea…)
        - Bildutako datuak webgunean sartzea
    - Inkesta soziolinguistikoa: VI. Inkesta soziolinguistikoari dagozkion emaitzen behin betiko txostenak idaztea eta 4 hizkuntzetara itzultzea
    - Euskara gaitasun agiriak:
        - C1 mailako gaitasun agiria eskuratu duten pertsonen zerrenda igortzea, agiriaren baliokidetza aitortua izan dakien
        - Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzako EAEE-IVAP zerbitzuekin lanketa, euskara agiriak lizeoetako azterketariei elektronikoki pasaraztearen egingarritasuna ikertzeko
    - Helduen euskalduntze prozesua:
        - Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuekin lana segitzea, C1 maila baino gorago den euskara ikastaroak antolatzeko dispositibo baten definitzeko eta egituratzeko, euskaraz lan egiten duten profesionalentzat: material pedagogikoen ekoizle, itzultzaile, kazetari…

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako foru komunitateko gobernuekiko lankidetza:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako foru komunitateko Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean,



        - EEP/Eusko Jaurlaritzaren artean hartu erabakien berri elkarrekin ematea
- Elkarlanean bideratutako lanak:
    - Euskararen lurraldeen (Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herria) arteko mugaz gaindiko Euskararen Adierazle Sistema:
        - Jendarteratze tresna digitala berriak zabaltzea
        - Datuen bilketaren jarraipena
        - Eskuragai ez dauden datuen bilketaren antolaketa
        - Sisteman adierazle berriak sartzeko aukeren aztertzea
    - VI. Inkesta soziolinguistikoa: VI. Inkesta soziolinguistikoari dagozkion behin betiko azterketen euskarriak 4 hizkuntzetan argitaratzea eta 2021eko VII. Inkesta soziolinguistikoaren apailatzeko lanak hastea
    - Euskara gaitasun agiriak:
        - Eusko Jaurlaritzak baliokidetza dekretua publikatzea
        - C1 eta B1 mailako gaitasun agiria eskuratu duten pertsonen zerrendak igortzea, agiriaren baliokidetza aitortua izan dakien
        - HABE institutarekin lankidetza, B2 mailako B2EA agiria sortzeko
        - Euskara gaitasun agirietako zuzentzaileek HABE eta IVAP institutek antolatu azterketen bateratze saioetan parte hartzea
        - Euskal Autonomia Erkidegoko EAEE-IVAP institutuarekin lankidetzaren jarraipena, euskara gaitasun agiriak desmaterialtzeko tresna bat sortzeko
    - Helduen euskarazko formakuntza:
        - Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekin lan egiten segitzea C2 maila erdiesteko euskara formakuntza intentsiboa definitzeko eta egituratzeko euskaraz lan egiten dutenentzat

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako foru komunitateko gobernuekiko lankidetza:
    - 3 partaideen artean izenpetu hitzarmenari dagokion 2020ko lankidetza programa definitzea eta adostea

2017-2021 epealdirako izenpetu mugaz gaindiko lankidetza hitzarmenari lotu 2019ko lankidetza-programaren definitzea eta adostea

- Elkarlanean bideratutako lanak:
  - Irakaskuntza:
    - EAEko unibertsitateetan sartzeko aukerak eta moldeak, ikasketak euskaraz segitu nahi dituzten ikasleentzat: Ipar Euskal Herriko ikasleen beharrak eta aurkitzen dituzten oztopoak zehaztuko duen txosten baten egiteko behar diren datuen biltzea
  - Euskara helduei irakatsi: bilkurak partaideekin beharrak eta lehentasunak zehazteko
  - Hizkuntza gaitasunak ebaluatzea eta ziurtatzea: Euskal Autonomia Erkidegoko baliokidetza batzordeak Ipar Euskal Herriko B1 mailako gaitasun agiriaren baliokidetze eskaera onartzea
  - Euskararen erabilera aisialdien eremuan: hiru lurraldeetan dauden proiektuen aztertzea (egonaldiei dakokionez) eta mugaz gaindiko proiektu bat euskaraz elkarrekin antolatzeko egokitasuna eta aukera aztertzea.
  - Euskararen sentsibilizazio eta promozioa: Eusko jaurlaritzak eta euskararen eragile sozialek abiatu Euskaraldia proiektuaren koordinazio Komisioan parte hartzea
  - Ikerketa soziolinguistikoak: Euskararen Adierazle Sistemaren garapena jarraitzea
  - Terminologia: Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeko terminologia lan taldean parte hartzea

- **Politiken ebaluazioa eta jarraipena**

  - Behaketa, jarraipen eta ebaluazio funtzioa egituratzea, honako misioetan:
    - Bideratu beharko diren ebaluazio misioei buruzko bide orri baten proposaketaren abiatzea, 2020ko hastapenean EEPko Bulegoari aurkezteko gisan:
      - EEP-ren Proiektu estrategikoan erabakitako norabideetan oinarriturik:
        - Mugaz gaindiko Euskararen Adierazle Sistema (EAS)
        - Adierazle kuantitatibo eta kualitatibo osagarrien sistema
        - Inkesta soziolinguistikoa (5 urtero)
        - Berariazko ikerketak (hedabideen kontsumoaz...)



- Arlo ezberdinetan partaideen artean adostu 2020ko lankidetza programa bideratzea (ik. 2020ko eranskina)

- **Politiken ebaluazioa eta jarraipena**

  - Behaketa, jarraipen eta ebaluazio funtzioa egituratzea, honako misioetan:
    - Bideratu beharko diren ebaluazio misioei buruzko bide orriaren amaitzea, EEPko Bulegoak adosteko gisan 2020 hasieran.
    - Bide orriaren obratzea erabakiaren eta lehenespenen arabera

  - Talde teknikoa ebaluaketa lanetan laguntzea

  - Hasitako misioen obratzearen jarraipena:
    - Ama eskola publiko eta pribatuetan esperimentatutako murgiltze

- IPEko kideek eraman politiken behaketa (ikus Hitzarmen-sortzailearen 2. artikulua): jarraipenerako adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak, kide bakoitzarekin lotura eginez
- Obratuak edo lagunduak diren politikak eta neurriak ebaluatzea, batez ere duten eraginarekiko eta lortu nahi diren helburuekiko
- Hizkuntza politikaren alorreko berritasunen eta esparru juridikoaren aldaketen behaketa
- EEPk finantzatu ekintzen ebaluazio-sistema plantan ezartzea, gisa horretan diru-laguntzen bideratzea irizpide objektiboen arabera egiteko.

▪ Bestalde identifikatutako ebaluazio beharrak kondutan hartu: ebaluazio beharren bilketa eta egoeraren lehen bilana

○ Eragile nagusien aktibitateen jarraipen eta ebaluazio sistemaren prestaketa-lana

- Ebaluazio lanen obratzea:
  - ○ Ama eskola publiko eta pribatuetan esperimentutako murgiltze sistemaren ebaluazio kuadroaren egituratzea ( Hezkunde Nazionalarekin partaidetzan ) - (ikus Irakaskuntza)
  - ○ Norbanakoen euskalduntzeari lotutako AEK-ren diru-laguntzaren emendioa objektibatzen duen nota baten obratzea

- **Informazioa, komunikazioa, sentsibilizazioa**

- Informazioaren, komunikazioaren eta sentsibilizazioaren funtzioa egituratzea, eremu eta gai desberdinetan lankidetzan aritzen diren partaideekin:
  - ○ Lanaren abiatzea zerbiztu emaile espezializatuarekin: diagnostiko fasearen obratzea eta ondorioen aurkezpena Bulegoari, komunikazio beharren definitzearen aintzinetik



sistemaren ebaluazioaren bukatzea (ikus Irakaskuntzari lotutako partea)

- ○ Mugaz gaindiko Euskararen Adierazle Sistema (EAS): adierazleen eguneratzea, adierazle berri batzuen garatzearen aukeraren aztertzea (jarraipen batzordean eta batzorde teknikoetan parte hartuz)
- ○ 2021ean obratuko den VII. Inkesta soziolinguistikoaren prestaketa lanetan parte hartzea
- ○ IPEko kideek eraman politiken behaketa (ikus Hitzarmen-sortzailearen 2. artikulua): jarraipenerako adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak, kide bakoitzarekin lotura eginez
- ○ Eragile nagusiekin elkarlanean, EEPk diruztatzen dituen ekintzen ebaluazio desmartxa baten egituraketa, Helburu eta Ahalbide Hitzarmenak eraikitzeko gisan
- ○ Hizkuntza politikaren alorreko berritasunen eta esparru juridikoaren aldaketen behaketa

- **Informazioa, komunikazioa, sentsibilizazioa**

- Lankidetzan ari diren partaideekin batera, informazioaren, komunikazioaren eta sentsibilizazioaren funtzioa egituratzea
  - ○ Zerbitzu emailearen lanaren bukatzea: komunikazio beharren definitzea eta komunikazio estrategiaren obratzea

**2019 jarduera bilduma**

**2020ko aitzinikusi jarduera programa**